

**BALDINTZA-AGIRIAK, EUSKARAREN GAINEKO NAFARROAKO VIII. INKESTA SOZIOLOGIKOAREN
LANDA-LANA KONTRATATZEKO**

Espedientea: 0005-CP01-2026-000043

Kontratazio organoa: Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko kudeaketako zuzendaritza.

Unitate kudeatzailea: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua.

AURKIBIDEA

A ATALA - BALDINTZA PARTIKULARRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. SORTEN EDUKIA ETA DESKRIBAPENA
3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA
4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA
5. EGIKARITZEKO EPEA
6. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
7. PERTSONA EDO ENTITATE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK
8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA
9. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA
10. ESKAINTZEN AURKEZPENA
11. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA
 - 11.1. Aurkeztu beharreko agiriak
 - 11.2. Aurkezteko modua
12. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
13. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
14. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA
15. KONTRATUA EGIKARITZEA
16. LANEN ORDAINKETA
17. KONTRATUA BETETZEA
 - 17.1. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak
 - 17.2. Lanak gainbegiratzea eta ikuskatzea
 - 17.3. Ez-betetzeak
 - 17.4. Zigorrak
 - 17.5. Arriskua eta mentura
 - 17.6. Kontratuaren interpretazioa
 - 17.7. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak
 - 17.8. Kontratatistak lan araudia betetzea
18. JABETZA INTELEKTUALA
19. AZPIKONTRATAZIOA
20. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA
21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK
22. ERANSKINAK
 - I. ERANSKINA.–Baldintzak betetzearen adierazpena
I.I eranskina
 - II. ERANSKINA.–Baterako parte-hartzerako eredia
 - III. ERANSKINA.–Eskaintza ekonomikoaren eredia
 - IV. ERANSKINA.–Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua

B ATALA – BALDINTZA TEKNIKOAK

1. OINARRIA ETA AURREKARIAK
2. EGIN BEHARREKO LANAREN XEDEA ETA EZAUGARRIAK
3. LANEN DESKRIBAPENA
 - 3.1 Landa-lana antolatzea eta planifikatzea
 - 3.2 Informazioa biltzea (inkestak)
 - 3.3 Landa-lanaren jarraipena, gainbegiratzea eta kontrola egitea
 - 3.4 Datuen tratamendu teknikoak
 - 3.5 Unitate titularren tratamendua
 - 3.6 Azken dokumentazioa prestatzea eta entregatzea
4. EUSKARABIDEAK INKESTARAKO EMANDAKO BALIABIDEAK
5. ENTREGATZEKOAK
6. EGIKARITZEKO EGUTEGIA: EPEAK ETA MUGAEGUNAK
7. LANTOKIA
8. LANEN JARRAIPENA
9. BALIABIDEAK
10. DATUEN BABESA

BALDINTZA PARTIKULARRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da landa-lana kontratatzea **Euskararen gaineko Nafarroako VIII. Inkesta Soziolinguistikorako. Lanak barne hartuko du datuak antolatzea eta jasotzea, grabatzea, kodetzea, araztea eta baliozkotzea.**

Inkesta soziolinguistikoa ikerketa kuantitatibo bat da, xede duena euskararen gaineko hizkuntza-gaitasuna, erabilera eta transmisioa aztertzea, bai eta Nafarroako herritarrek hizkuntza horren sustapenarekiko zer iritzi eta jarrera duten aztertzea. Inkesta aldian-aldian egiten da 1991. urtetik; zehazki, bost urtean behin.

Proposamenetan, zehatz-mehatz adierazi beharko da zer metodologia erabiliko den landa-lana egitean. Eta, bereziki, honako hauek azalduko dira:

- Landa-lanaren antolaketa.
- Jarraipen eta kontrol mekanismoak.
- Jasotako erantzunen kalitate ona bermatzeko neurriak.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak enpresa adjudikaziodunari galdetegia (egituratua eta itxia) emanen dio, baita lagin izenduna ere, laginketa geruzatu baten bidez lortutakoa eta aintzat hartzen dituen udalerririk, sexu- eta adin-kuotak eta euskal hiztunak direnak eta ez direnak.

Landa-lanak bi lagin bereizi izanen ditu:

- 1.000 inkesta, euskal hiztunei eginikoak; eta
- beste 1.000 inkesta, euskal hiztunak ez direnei eginikoak. **Osotara, 2.000 inkesta** egingen dira.

Enpresa adjudikaziodunak **SPSS** formatuan grabatu beharko ditu datuak, aurretiaz behar bezala grabatzen direla bermatuta: galderen eta erantzunen arteko korrespondentzia izatea, errenkada eta zutabeetan kokapen egokia izatea, bikoizketarik ez egotea eta fitxategiaren kalitatea bermatzeko beharrezkoa den beste edozein berrikuspen.

Landa-lana amaitu ondoren, enpresa adjudikaziodunak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari igorriko dio SPSS fitxategia, **intzidentzia txosten** batekin batera. Azken horretan jasoko da zer intzidentzia aipagarri gertatu den kontratazioa, grabazioa, berrikuspena, kontrola eta galdetegiaren kudeaketa gauzatu bitartean.

2. SORTEN EDUKIA ETA DESKRIBAPENA

Sorta bakarra egonen da lizitazio honetan. Proiektua osatzen duten lanak oso lotuta daude elkarren artean, eta batera egikaritu behar dira. Izan ere, horiek modu independentean egiteak zailtasun teknikoak ekarriko lituzke kontratua behar bezala egikaritzeko.

Jarduera guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa da lanaren kalitatea eta koherentzia bermatzeko; hortaz, ez litzateke efizientea izanen kontratua zatitzea, eta aurreikusitako prestazioak behar bezain ongi aprobetxatzeko aukerak murriztuko lituzke.

3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Kontratua Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

5. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratua formalizatzen den egunetik **2026ko abenduaren 2ra** arte egonen da indarrean, eta hori izanen da fitxategiak eta dagokion txostena entregatzeko azken eguna.

6. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 33.135,94 euro da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, eta lizitazioaren gehieneko aurrekontua 40.094,49 euro da (BEZa barne).

Aurrekontu hori gehienekoa da; beraz, lizitatzailleek eskaintzek aurrekontuaren zenbateko berekoak edo txikiagoak izan beharko dute.

Ordainketa 2026ko gastu-aurrekontuko partida honen kargura egingen da: B30000 B3000 2276 334100 "Azterlan eta lan teknikoak/Estudios y trabajos técnicos".

Ez da onartuko lizitazioaren aurrekontu horretatik goitiko eskaintzarik.

Ez da onartuko prezioak berrikusterik kontratua indarrean dagoen bitartean.

7. PERTSONA EDO ENTITATE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Kontratazio prozeduran honako hauek hartzen ahalko dute parte: Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoak, jarduteko gaitasun osoa dutenak, ez daudenak kontratatzeke debeku edo bateraezintasunen mende eta ez daudenak interes-gatazkako egoeran. Baldintza horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko egunean bete beharko dituzte parte-hartzaileek.

Pertsona edo entitate lizitatzailleek banaka edo beste batzuekin batera lehiatzen ahalko dira, aplikatzekoa den legediarekin bat.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, agiri honen II. eranskinean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bat bete beharko da.

8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Kontratu honetan, kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko, antzeko jardueren esparruko negozio-bolumenari buruzko adierazpen bat egin beharko da, non amaitutako azken urteetan (2023-2024-2025) izandako negozio bolumen handiena gutxienez 28.000 euro izan beharko baita.—Aipaturiko adierazpena I. eranskinean txertatuko da.

9. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Enpresa adjudikaziodunak egiaztatu beharko du baduela esperientzia kontrastatua lizitatutako kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako lanak egitean, bai eta ezarritako prestazioekin lotutako jarduera profesionalen bat gauzatzean ere. Informazio hori I. eranskinarekin batera aurkeztu beharko da.

Kaudimena frogatzeko, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Azken hiru urteetan (2023-2024-2025) eginiko **zerbitzu nagusien zerrenda**, betiere kontratuaren xedearen nolakotasunarekin eta ezaugarriekin bat datozenena. Zerrendan, honako hauek adierazi beharko dira zerbitzu bakoitzeko: **zenbatekoa**, **egikaritze data** eta **hartzailea**, publikoa zein pribatua izan. Gainera, **zuzenbidean onartutako edozein frogabidek ziurtatuta** egon beharko du.

Egikaritze handieneko urteari dagokion urteko zenbatekoa kontratuaren balioaren % 70ekoa edo handiagoa izan beharko da, hau da, 28.000 eurokoa edo gehiagokoa.

- Proiektuaren arduradunaren (zuzendaritza eta koordinazioa) **titulazio akademikoa**. Goi mailako unibertsitate titulua –gradua edo graduondokoa– izan beharko du, honako arlo hauetako batean: antropologia, soziologia, estatistika, euskal ikasketak edo zientzia politikoak.
- Proiektuaren arduraduna (zuzendaritza eta koordinazioa) antzeko jardueretan gutxienez urtebetez aritu izanaren **esperientzia profesionalaren egiaztatzea**. Kasu honetan, antzeko jardueratzat hartuko da gizarte arloko ikerketak zuzendu eta/edo koordinatu izana.
- Proiektuaren arduradunak (zuzendaritza eta koordinazioa) **euskaraz dakiela egiaztatzen duen titulua**, C1 mailakoa edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan horren baliokide den batekoa.
- Inkestak egin eta gainbegiratu dituzten langile guztiek **euskaraz dakitela egiaztatzen duten tituluak**, C1 mailakoak edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan horren baliokide direnetakoak.

Kaudimenaren egiaztagiriak **enpresa adjudikaziodunak** (I.I eranskina) **bakarrik** aurkeztu beharko ditu; hasierako fasean, nahikoa izanen da baldintzak betetzen direla baieztatzen duen **erantzukizunpeko adierazpena** egitea. Adierazpen hori **A gutun-azalean** (Entitate lizitatzaillearen gaitasuna eta kaudimena egiaztatze dokumentazioa) jasoko da, bat etorritik agiri honen **I. eranskinarekin**.

10. ESKAINTZEN AURKEZPENA

Proposamenak Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren (hemendik aitzina, PLENA) bidez soilik aurkeztu ahalgo dira; era berean, PLENAREN bitartez egingen dira komunikazio oro eta entitate interesdunek egin beharreko gainerako tramiteak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalgo da PLENARA; handik, interesa duen edonork deskargatzen ahalgo du mahaigaineko aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak prestatzen eta aurkeztu ahal dira, gutun-azal digitalaren bidez, bai eta gordailu seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENAREN bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa egingen duenaren mahaigainean zifratzen dira, zifratze mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, gordailu seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitaziorako iragarkian ezarritako da, eta gutxienez 15 eguneko izanen da, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Gutun-azalak irekitzeko unean epea kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, arrastoaren baliozkotasuna egiaztatuko da; arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barruan aurkeztu bada, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki egingen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu edo eskaintza luzatutako 24 orduko epea kanpo jaso bada, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epea kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailleak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntan intzidentzia teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Entitate lizitatzaillearen ezagutza ezak edo plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta lizitazio prozeduratik baztertzea ekarriko dute; gauza bera gertatuko da eskaintzak ezarritako bidea ez den batetik aurkeztuz gero.

11. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA

11.1 AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentazioa hiru gutun-azal elektronikotan aurkeztu beharko da. Honela banatuko dira gutun-azalak:

- A gutun-azala: Dokumentazio orokorra.

- B gutun-azala: Balio iritzien bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.
- C gutun-azala: Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien fitxategi elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: Dokumentazio orokorra:

A gutun-azalean entitate lizitatzaileraren erantzukizunpeko adierazpena egonen da, agiri honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera eta Administrazioarekin kontratu bat sinatzeko baldintza orokorrak betetzen direla egiaztatzen duena, entitatearen izaera, gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa egiaztatzearekin bat.

Adierazpenean, nahitaez, jakinarazpen telematikoetarako gaitutako helbide elektroniko bat adierazi beharko da.

Pertsona edo entitate batzuek batera parte hartuz gero, II. eranskina aurkeztu beharko da, eta honako hau adierazi:

- Batera lehiatzeko nahia.
- Taldearen kide bakoitzaren parte-hartze ehunekoa.
- Ordezkarri edo ahalduen bakarraren izendapena, zeinak kontratua amaitu arte haren ondoriozko eskubideak gauzatu eta betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa izanen baitu.

Dokumentu hori parte hartzen duten entitate guztiek sinatu beharko dute, bai eta ordezkari edo ahalduen hautatutakoak ere.

Agiri honen 9. puntuan ezarritakoarekin bat, kaudimen teknikoaren egiaztagiria entitate adjudikaziodunari bakarrik eskatuko zaizkio.

B gutun-azala: Balio iritzien bidez ebalua daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa:

B gutun-azalak entitate lizitatzailerak aurkeztutako **dokumentazio tekniko** guztia izanen du, balio iritzien bidez ebalua dadin. Dokumentazio horretan, kontratua behar bezala egikaritzeko beharrezko prestazio guztien azalpen xehea jaso beharko da.

Hain zuzen ere, gutun-azalean dokumentu hauek egonen dira: **Proposamen tekniko**.

Proposamenak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- **Lan-prozesuaren identifikazio zehatza:**
 - Deskribapena, kontratua egikaritzeko aurreikusitako zereginena, faseena, aldiena, baliabide materialena eta langileena.
- **Erantzunik eza baliozkotzeko, arazteko eta tratamendurako metodologia:**
 - Inkesta eginen dutenekin harremanetan jartzeko estrategia
 - Erantzunik ezaren tratamendua
 - Baliozkotzeko eta arazteko irizpideak
 - Metodologia egokitzea ikerketaren xedera
- **Inkesten kalitatea kontrolatzeko sistema:**
 - Erantzunen egitasuna, oinarria eta benetakotasuna egiaztatze prozedurak.

- Inkesta egiten duen taldea gainbegiratzeko, haren jarraipena egiteko eta hura kontrolatzeko mekanismoak.

C gutun-azala: Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa:

C gutun-azalean jasoko dira **eskaintza ekonomikoa** eta **formula bidez ebalua daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa**. Hain zuzen ere, gutun-azalean dokumentu hauek egonen dira:

- Justifikazio dokumentazioa, enpresak euskararen edo bestelako hizkuntza gutxituen datu demolinguistikoak jasotzeko lanak egiten izandako ibilbide eta esperientziarena. **Zerbitzua egoki egikaritu dela dioen ziurtagiria** aurkeztu beharko da, kontratugileak sinatutakoa, eta bertan, gutxienez, lanaren prezioa, data eta xedea agertu beharko dira.
- Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioari buruzko dokumentazioa.
- Proiektuaren koordinatzaileari dagokion dokumentazioa, honako hauek barne:
 - Soziolinguistika arloko titulazio akademikoak.
 - Agiri honen 9. puntuan eskatutako goi mailako egiaztagiri linguistikoak.
- Proposamen ekonomikoa, **III. ERANSKINA**ren arabera.

Proposamen ekonomikoa behar bezala sinatu beharko du pertsona edo entitate lizitatzailerak edo haren ordezkariak. Bakarra izanen da, eta ezin izanen du gainditu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa.

Prezioak eurotan adieraziko dira, eta barne hartuko dira zergak, tasak eta kontratua egikaritzearen ondorioz sortutako beste edozein gastu.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan beharko du enpresa adjudikaziodunak aurre egin ahal izateko, gutxienez, dagokion sektoreko hitzarmena aplikatzearen ondoriozko kostuei, eta langileen orduko prezioa ez dadin izan hitzarmen horretan jasotakoa baino baxuagoa, barne hartuta hobekuntzak eta Gizarte Segurantzaren kostuak.

Eskaintako prezioa kalkulatzeko, barne hartu beharko dira jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren ordainsari eta egitura kostu guztiak. Besteak beste:

- Langileen ordainsariak, zeinek Nafarroako Bulego eta Langelen sektorearen hitzarmen kolektiboan ezarritako ordainsarien baldintzak gutxienez bete beharko baitituzte.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenean loturik badaude.

11.2 AURKEZTEKO MODUA

Enpresa lizitatzailerak Lizitazio Elektronikoaren Plataformak (PLENA) eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak enpresa lizitatzaileraren mahaigainean zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrek erabiliz. Behin aurkeztu ondoren biltegi seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon behar dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, PLENAn jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalorde aski izan beharko dute.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana izan behar da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoaren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari erantsen zaion banakako fitxategi bakoitzaren tamaina 50 MB izan behar da, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, dokumentu guztiak barne, 100 MB izan behar da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakioken fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu plataformak eskaintzaren aurkezpenean erantsen diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip); artxibo konprimatu batean (ZIP) sartuz erantsen ahalko dira bestelako formatuak dituzten artxiboak.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailerak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izan behar dute lehentasuna.

Eskaintza nork igortzen duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzeko ahalorde nahikoa duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

1. Eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki enpresaren edo entitatearen ahalordedunaren ziurtagiriarekin. Hala egiten bada, aplikazioaren formularioetan sartutako informazio ekonomikoa baliozkoa izan behar litzateke.
2. Eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahaldunek sinatutako dokumentu elektronikoak erantsen dira.

Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresa lizitatzailerak agiri honetako klausulak onartzea salbuespen edo erreserba bakarrik gabe, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, bertan adierazteko aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Enpresa lizitatzailerak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko da, eskaintza aurkeztu izanaren egiaztagiri gisa. Lizitaziorako plataforman (PLENA) eskaintza aurkeztean akatsik eginez gero, 24 orduko epea izan behar da eskaintza osoa hartzeko, PLENaren bitartez, eta aurkezpena osatutzat hartu ahal izateko. Horretarako baldintza izan behar da posta elektronikoaren bidez arrastoa igorri izana kontratazio organoari, gonbidapenean harremanetarako ezarritako helbidera, eskaintzak aurkezteko epearen barnean. Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek 5 minututik gorako desfasea ez izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuak zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1 seg. Hori izan behar da, hortaz, zerbitzu elektronikoaren ordu ofiziala.

- Lehen mailako iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilan).
- Bigarren mailako ordu-iturriak:

- canon.inria.fr, INRIA, Paris
- i2t15.i2t.ehu.es, EHU

12. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kontratuaren adjudikazioa egiteko, aintzat hartuko dira, batetik, kostua/efikazia (prezioa) irizpidea, eta, bestetik, irizpide kualitatiboak. Hartara, kalitate/prezio erlazio onena duen eskaintza hautatuko da. Ondorio horietarako, adjudikaziodun izanen da osotarako puntu gehien lortzen dituen eskaintza, 100 punturen gainean eta agiri honetan ezarritako adjudikatzeko irizpideak aplikatuta.

12.1 Irizpide kualitatiboak (balio iritzien bidez ebalua daitezkeenak): 35 puntu, gehienez ere.

Proiektuaren proposamen teknikoa honela baloratuko da:

a) Lan-prozesuaren identifikazio zehatza: 12 puntu, gehienez ere.

Deskribapena, kontratua egikaritzeko aurreikusitako zereginena, faseena, aldiena, baliabide materialena eta langileena.

Lan-planaren argitasuna eta koherentzia	Prozesuaren deskribapena ordenatua da, ulergarria eta kontratuaren xedearekin lerrokatutakoa.	3 puntu
Zereginen eta faseen xehetasunak eta egokitasuna	Zereginak behar bezala definituta daude, egokiak dira eta proiektuaren behar guztiei erantzuten diete.	3 puntu
Aldien eta kronogramaren egokitasuna	Egutegia errealista da, orekatua eta egingarria.	3 puntu
Baliabide materialen eta langileen egokitasuna	Ezarritako baliabideak nahikoak, egokiak eta proportzionatuak dira kontratuaren irismenari dagokionez.	3 puntu

b) Erantzunik eza baliozkotzeko, arazteko eta tratamendurako metodologia: 14 puntu, gehienez ere.

Inkesta eginen dutenekin harremanetan jartzeko estrategia	Hurbiltze metodoen, saialdien kopuruaren eta harremanaren antolamenduaren argitasuna.	4 puntu
Erantzunik ezaren tratamendua	Argudioen, ordezte prozeduren eta erantzunik eza ahalik eta gutxiena izan dadin hartutako neurrien kalitatea.	5 puntu
Baliozkotzeko eta arazteko irizpideak	Kontrolen zorrozatasuna eta zehaztasuna (grafoa, inkoherentziak, barne-berrikuspenak, etab.).	5 puntu

c) Inkesten kalitatea kontrolatzea: Gehienez ere 9 puntu

Erantzunen ikuskapena eta egiaztapena	Erantzunen egitasuna, sendotasuna eta benetakotasuna egiaztatze prozedurak.	5 puntu
Datuen bilketan aritzen diren langileen gainbegiratzea	Inkesta egiten duen taldea gainbegiratzeko, haren jarraipena egiteko eta hura kontrolatzeko mekanismoak.	4 puntu

Gehieneko puntuazioa lortuko du ikerketaren xedeetarako egokiena den eta ezarritako baldintzak osorik, modu egoki eta koherentean betetzeko gaitasun handiena frogatzen duen proposamenak.

Gainerako proposamenak proportzionalki baloratuko dira, egokitzapen mailaren, proposatutako konponbideen kalitate teknikoaren eta aurkeztutako proposamenaren barne koherentziaren arabera.

12.2. Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: 65 puntu, gehienez ere.

12.2.1. Enpresak antzeko proiektuetan duen ibilbidea eta esperientzia (euskararen edo bestelako hizkuntza gutxituen egoera soziolinguistikoari buruzko ikerketak, adibidez), **14 puntu**, gehienez ere:

Zerbitzua egoki egikaritu dela dioen ziurtagiriaren bidez frogatutako esperientzia baloratuko da, euskararen datu demolinguistikoak biltzeko lanei dagokienez.	10 puntu, gehienez
10.000 eta 15.000 € artean baloratutako lanak	2 puntu lan bakoitzeko
15.001 eta 25.000 € artean baloratutako lanak	3 puntu lan bakoitzeko
25.000 € baino gehiagoan baloratutako lanak	4 puntu lan bakoitzeko
Zerbitzua egoki gauzatu dela dioen ziurtagiriaren bidez frogatutako esperientzia baloratuko da, beste hizkuntza gutxituen datu demolinguistikoak biltzeko lanei dagokienez.	4 puntu, gehienez
10.000 eta 15.000 € artean baloratutako lanak	1 puntu lan bakoitzeko
15.001 eta 25.000 € artean baloratutako lanak	2 puntu lan bakoitzeko
25.000 € baino gehiagoan baloratutako lanak	3 puntu lan bakoitzeko

12.2.2. **Irizpide sozialak: 10 puntu**, gehienez ere.

5 puntu plantillan $\geq$ % 33ko desgaitasuna duen pertsona 1 izateagatik
5 puntu, proiektuaren koordinatzaileak genero-berdintasunaren arloko graduondoko unibertsitate-titulua edo master ofiziala izateagatik.

12.2.3. Proiektuaren koordinatzailearen **titulazioa: 6 puntu**, gehienez ere

Euskararen egoera soziolinguistikoarekin lotutako titulazioa	
“HIZNET” Hizkuntza Plangintza aditu-titulua	4 puntu tituluko
Euskararen Kudeaketa eta Hizkuntza Praktikak Erakunde Publikoetan aditu-titulua	2 puntu tituluko

Euskararen egoera soziolinguistikoarekin lotutako titulazioa	
Hizkuntza Kudeaketa eta Hizkuntza Praktikak Eremu Sozioekonomikoan aditu-titulua	3 puntu tituluko
Euskararen Hizkuntza Praktikak Eremu Ez-formalean aditu-titulua	2 puntu tituluko
Beste hizkuntza gutxitu batzuen egoera soziolinguistikoarekin lotutako titulazioa	
Euskaraz besteko hizkuntza gutxituen egoera sozialarekin hertsiki lotutako graduondoko unibertsitateko titulazioak, 15 ECTSkoak, gutxienez.	0,2 puntu ECTS bakoitzeko (15 ECTS baino gehiagoko titulazioetan)

12.2.4. Eskaintza ekonomikoa: 35puntu, gehienez ere.

Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Eskaintza baxuena (BEZik gabe)}}{\text{Lizitatzaillearen eskaintza (BEZik gabe)}} \times 35$$

Eskaintza baxuegia: eskaintza baxuegiak izanen dira aurkeztutako eskaintzen batez bestekoa baino % 15 baxuagoak direnak, BEZik gabe. Halakoetan, kontratazio-organoak, jakinaren gainean jarriko ditu ukitutako lizitatzaille guztiak, bost eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten. Lizitatzailleen alegazioak ikusi eta aholku tekniko egokia jaso ondoren, ebazpen arrazoitua emanen da eskaintzaren onarpenari buruz.

Bi entitate lizitatzailleak edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresa, betiere plantillako langile guztien % 3k, gutxienez, desgaitasunen bat baldin badu; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, betiere langileen % 10 baino gehiago ez badira; eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, genero arloko jardunbide egokiak egiten dituela frogatzen duen enpresa. Horretarako, unitate kudeatzaileak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aitzineko irizpide horiek aplikatu ondotik berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da.

13. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Adjudikazio proposamena jakinarazi ondoren, entitate lizitatzailleak, **7 egun naturaleko** epean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Nortasuna frogatzen duen dokumentazioa:

- Entitate lizitatzaileria pertsona fisiko bat bada, nortasun agiri nazionala edo hori arauz ordeztzen duen dokumentua aurkeztu beharko du.
- Lizitatzaileria pertsona juridikoa bada, eratze eta, halakorik bada, aldatzeko eskriturak aurkeztu beharko ditu, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.
- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkeztzen edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztuko dituzte: ahalorde askiatsia eta ahalduaren nortasun agiri nazionala. Entitate lizitatzaileria pertsona juridikoa bada, ahalordea dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon behar da, betebeharrak hori eskatzeko denean aplikagarri zaion merkataritzari buruzko legeriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailerien Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitatzaileriak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkeztzen baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoa Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizuneko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago egin, entitate lizitatzaileriak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duena.

c) Entitate adjudikaziodunak zergak Nafarroatik kanpo ordaintzen baditu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, zerga agintziak edo foru ogasunak egin.

d) Entitate adjudikaziodunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela frogatzen duen egiaztagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago egin.

e) Kaudimen teknika frogatzen duen egiaztagiria, agiri honen 9. puntuarekin bat.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, adjudikazioduna prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

14. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Unitate kudeatzaileak behar den adjudikazio-proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan.

Proposamen horretan jasoko dira ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz egindako balioespenak, eta horren barrenean, berriz, proposamen onargarria egin duten lizitatzailerien lehentasunaren hurrenkera, atera duten puntu kopurua zehaztuz, eta adieraziz, hala behar badu, zer hobekuntza eman diren ontzat.

Adjudikazioa behar bezala arrazoitu beharko da, bai eta entitate lizitatzaileria guztiei jakinarazi ere; gainera, horren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturalean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasita.

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, adjudikazioaren etete epea bukatu ondoko 15 egun naturaleko epearen barnean. Administrazioak eta entitate kontratistak formalizatuko dute kontratua.

15. KONTRATUA EGIKARITZEA

- Kontratua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrol pean gauzatuko da.

Lanak egikarituko dira klausula hauei eta langile arduradunek idatziz emandako jarraibideei loturik. Entitate kontratistak une oro men egin beharko die indarrean dagoen legeriak administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

- Adjudikazioduna izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra, eta, beraz, inola ere ez dute kontratu edo lan harremanik izanen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak beretzat gordeko du ahalmena enpresari eskatzeko zerbitzua ematen duten langileak ordezkari ditzan, non eta, bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbateko kalitate mailarekin ematen.
- Enpresa beharturik dago kontratu hau egoki betetzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, laneko bulegoa, aretoak eta langileak ekartzera.
- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak ez du inolako harreman funtzional, organiko edo laboralik izanen langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez bukatu ondoren.
- Enpresa kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Halaber, kontratua egikaritzearen ondorioz ekoitzi edo zabalduko zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio material edo informazio materialetan adierazi behar da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren dela erakunde kontratatzailea. Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren sinboloa azalduko da.

16. LANEN ORDAINKETA

Kontratuan ordainketa bakarra egingen da; lanak amaitu eta behar diren txosten eta fitxategiak entregatu ondoren egingen da ordainketa, **Euskarabidearen balorazio positiboa** izanda.

Ordainketa egin dadin, aurretiaz entitate adjudikaziodunak faktura aurkeztu beharko du. Faktura horren edukiak bete beharko du Fakturazio betebeharrak arautzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Fakturan kontzeptu hau adierazi beharko da, zehatz-mehatz:

“VIII. Inkesta Soziolinguistikoa landa lana / Trabajo de campo de la VIII Encuesta Sociolingüística.”

17. KONTRATUA BETETZEA

17.1. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

Kontratua gai hauei buruz indarrean dauden lege, erregelamendu eta konbentzio mailetakoko xedapenen mende dago: fiskalitatea, Gizarte Segurantzaren Babesa, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuan oinarrituriko jazarpena edo sexu-jazarpena, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak.

Kontratua egikaritzearen ondorioz sortzen den dokumentazio guztian, entitate adjudikaziodunak genero ikuspegia txertatu beharko du eta hizkera ez-sexista erabiliko du dokumentazioan eta materialetan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak, estereotipotik gabeko genero rolak eta zainketa lanetarako erantzukidetasuna islatzen dituen irudia ibiliko du. Halaber, estatistika eragiketa egokitu beharko du Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan ezarritakora.

Kontratazio organoak egokitzat jotzen dituen neurriak hartzen ahalko ditu, bermatzeko kontratua egikaritzean entitate kontratistak bete egiten dituela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 105. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hizkuntza arloko baldintzak:

Adjudikaziodunak nahikoa baliabide izan beharko du Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan zerbitzu integral bat emateko:

- Botere adjudikatzaileraren eta kontratistaren arteko harremanak, oro har, euskaraz izanen dira. Kontratua egikaritzeari dagokionez, “oro har, euskaraz” izatearen baliokide izanen dira honako hauek:
 - a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek, kontratua egikaritzeko funtzioetan ari direla botere adjudikatzailerarekin mintzatzen direnean, euskaraz ekinen diote elkarrizketari.
 - b) Idatzizko komunikazioetan, idatzia euskaraz eta gaztelaniaz egingen da, salbu eta hartzaileak eta igorleak berariaz hautatzen badute euskara.
 - c) Azken txostenak (emaitzen txostenak, egikaritze txostena...) gaztelaniaz eta euskaraz entregatuko dira.
- Herritarrekiko harremanetan, kontratistak eta kontratua egikaritzeko harekin lan egingen duten pertsonen arteko komunikazioa ahoz zein idatziz izan, erabiltzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da. Erabiltzaileak ez duenean hizkuntza bat edo beste hautatu, egikaritzeaz arduratzen den kontratistak egingen dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak, pertsona fisiko zein juridikoei bidalitakoak, euskaraz eta gaztelaniaz egingen dira.

Datuen babesaren arloko baldintzak:

- Enpresak lan honen bidez eskuratzen edo biltzen dituen datuak estatistika sekretuaren betebeharraren mende daude, bat etorri Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onesten duen

martxoaren 3ko 2/2025 Foru Legearekin, eta, hala badagokio, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin.

- Enpresa adjudikaziodunak zein kontratuaren egikaritzean zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsonak estatistika sekretuaren baldintza eta arloko araudia bete beharko dituzte.

17.2. Lanak gainbegiratzea eta ikuskatzea

Kontratua kudeatzen duen unitateak kontratua nola egikaritzen den gainbegiratu, ikuskatu eta kontrolatuko du, eta hitzartutakoa zehatz-mehatz bete dadin behar diren jarraibideak ematen ahalko ditu.

Entitate kontratistak edo haren mendekoei kontratua behar bezala betetzeko eragozpen edo traba izan daitezkeen egintzak edo omisioak egiten badituzte, kontratuaren unitate kudeatzaileak neurri zehatzak hartzeko eskatzen ahalko du, itundutakoa behar bezala egikaritzea lor dadin edo behar bezala egikaritzen segi dadin.

17.3. Ez-betetzeak

Entitate kontratistaren ez-betetzetzat joko dira honako jokabide hauek:

Ez-betetze arinak

A.1 Ez betetzea langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa, agiri honetan eskatu gisan.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez betetzea.

Ez-betetze astunak

B.1 Kontratua akatsekin egikaritzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Kontratuaren unitate kudeatzaileak emandako aginduak ez betetzea, hori egikaritzeari dagozkion gaietan.

Ez-betetze oso astunak

C.1 Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

17.4. Zigorrak

Entitate kontratistaren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

- a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren % 1ekoa gehienez.
- b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 1etik % 5erainokoa, entitate kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

- c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 5etik % 10erainokoa, entitate kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren % 20 adinakoa izaten ahalko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan xedatutako kontratu-exekuzioko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Entitate kontratista bati ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren % 20 baino gehiagokoa izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren % 10 baino handiagokoak direnean, kontratatze debekua deklaratzeko prozedura abiaraziko da.

17.5. Arriskua eta mentura

Kontratua entitate kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak entitate kontratistaren kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako aseguruia egiteko aukera.

17.6. Kontratuaren interpretazioa

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak interpretatzen ahalko du kontratua, bai eta hura betetzean sortzen diren zalantzak ebatzi ere. Ahalmen horren erabilera dokumentatu eginen da espediente baten bitartez, aurretiaz entitate kontratistari entzunaldia emanda. Espedientean bidezko diren txosten tekniko eta juridikoak jasoko dira, eta bidezkoa denean Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du.

17.7. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak

Kontratua egikaritzearen ondorioz ondasun eta pertsonen (jabetzarenak nahiz hirugarrenenak) eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak entitate kontratistari egozten ahalko zaizkio. Foru Komunitateko Administrazioak bakarrik erantzunen du bere organoen berehalako eta zuzeneko aginduen ondoriozko kalte-galerengatik.

17.8. Kontratistak lan araudia betetzea

Kontratu horrek errespetatu behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak, batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

18. JABETZA INTELEKTUALA

Entitate adjudikaziodunak espresuki onartzen du egindako lan guztien dokumentuak eta emaitzak eta haien jabetza intelektual Nafarroako Gobernuaren jabetza eskusiboa direla, eta Nafarroako Gobernuak osorik edo partez erreproduzitu ahal izanen dituela.

Kontratutako enpresak uko egin beharko dio kontzeptu horien gaineko eskubide orori; etorkizuneko lanetarako erreferentzia gisa soilik erabiltzen ahalko ditu.

19. AZPIKONTRATAZIOA

Honako prestazio hauek azpikontratatzeko ahaliko dira:

- Telefono bidezko inkestak egitea eta informazioa biltzearekin zuzenean lotutako gainerako zereginak.

Azpikontratatu ezin diren prestazioak

Ezin izanen dira azpikontratatu, inola ere, ikerketaren zuzendaritza teknikoa eta koordinazioa, entitate adjudikaziodunak zuzenean egikaritu beharko baititu.

Azpikontratatzeko asmoa adieraztea

Entitate lizitatzailerak azpikontratatzeko ahal diren prestazioetakoren bat azpikontratatzeko asmoa izanez gero, berariaz adierazi beharko du eskaintzan, eta I. eranskina bete. Bertan, honako hau adierazi beharko du:

- Azpikontratatzeko duen edo dituen enpresen identitatea.
- Azpikontratatzeko dituen zereginen deskribapen zehatza.

Azpikontratatzeko asmoa izan bai baina I. eranskina ez aurkeztea eskaintzaren baldintzen ez-betetze gisa hartzen ahaliko da.

Kontratatuen erantzukizuna

Enpresa adjudikaziodunak izanen du, une oro, Administrazioarekiko erantzukizun erabatekoa, kontratua bere osotasunean behar bezala egikaritzeari dagokionez, edozein direla ere azpikontratatzeko dituen zereginak.

Azpikontratazio orok errespetatu beharko ditu:

- Agiri honetan ezarritako mugak.
- Kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia.
- Aplikatzekoak diren lan, gizarte eta konfidentzialtasun betebeharrak.

20. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Unitate kudeatzaileak kontratua egikaritzeko entitate kontratatari utziko dizkion datu pertsonalen tratamendua, kontratatariaren aldetik, zorrozkiz lotuko zaio Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari. Datu horiek ez dira baliatzen ahaliko beste xede batzuetarako, ezta inola ere beste pertsona batzuei jakinaraziko. Behin kontratua beteta, aipaturiko datuak suntsitu edo itzuli egin beharko zaizkio kontratuaren unitate kudeatzaileari, datuak jasotzen dituen zeinahi euskarri edo agiri bezala.

Enpresa edo pertsona adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du isilpekotasunez eta lanbideko sekretua gordez jarduteko, laguntzaren xede diren datu eta agiriak dagokienez. Erabiltzen diren artxibo, base, memoria eta zerrendak oro Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren titulartasunekoak izanen dira. Ezin izanen dira erabili lan horrek ez dituen xedeetarako eta ezin izanen dituen erabili kontratatutako lanaz kanpoko inork.

Konfidentzialtasuna.

Kontratistak zein kontratuaren egikaritzearekin lotutako pertsona orok, bai eta, halakorik egonez gero, azpikontratistek ere, kontratua gauzatzean eskuratzen duten informazio guztia konfidentziala da, eta sekretu profesionalaren mende dago, bete beharrez aplikatzekoa den araudia. Hortaz, informazio hori isilpean eta sekretuan gorde beharko da, eta ezin izanen da inola ere ezagutzera eman, ez osorik ez partez, kontratuaren parte ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ere ez, salbu eta kontratazio organoak aurretiazko berariazko baimena ematen badu.

Aurreko pertsona fisiko edo juridikoetako edozeinek urratu egiten badu konfidentzialtasun betebeharra, eta, horrez gain, sekretu profesionalerako betebeharra, dagozkion erantzukizuna eta kalte-galerak eskatuko zaizkio, aplikatzekoa den araudiarekin bat. Betebehar horiek indarrean jarraituko dute kontratu-harremana amaitu ondoren ere.

Edonola ere, datu pertsonalak tratatzea eskatzen ez duten lanak egitean, ezin izanen da datu horietarako sarbiderik izan. Orobat, halakorik izanez gero, nahitaezkoa da sekretupean gordetzea.

Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko da edozein eragiketa edo eragiketa multzo; eragiketa horiek bitartetako automatizatuak edo ez-automatizatuak erabiliz egin daitezke. Adibidez: datuak biltzea; erregistratzea; antolatzea; egituratzea; gordetzea; egokitzea edo aldatzea; erauztea; kontsultatzea; erabiltzea; transmisio, hedapen edo sarbiderako bestelako edozein gaikuntza bidez komunikatzea; erkatzea edo elkarri lotzea; mugatzea; ezabatzea, edo suntsitzea.

Ondorioz, kontratista izanen da datuen tratamendurako arduraduna, eta unean indarrean dagoen araudia bete beharko du, datu pertsonalak behar bezala tratatu eta babesteko, bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarriarekin.

Konfidentzialtasun betebeharra bost urtez egonen da indarrean, informazioa jasotzen den unetik zenbatuta, bat etorritik sektore publikoko kontratuei buruzko legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin.

Kontratistak datuak bestelako xede baterako erabiltzen baditu, komunikatzen baditu edo kontratuaren estipulazioak edo indarreko araudia urratuta erabiliko balitu, tratamenduaren organo arduradun gisa hartuko da hura ere, eta eta pertsonalki erantzunen du egindako arau-hausteen gainean.

IV. eranskinak (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) xeheki azaltzen du zer datu pertsonal babestu behar diren, bai eta nola tratatu behar diren eta zer neurri ezarri behar dituen kontratistak.

Kontratua egikaritzearen ondorioz uneren batean beharrezkoa baldin bada IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) ezarritakoa aldatzea, kontratistak behar bezala arrazoituta eskatuko du, eta zer aldaketa egin nahi duen adieraziko du. Datuen tratamenduaren arduraduna ados badago eskatutakoarekin, IV. eranskin (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) eguneratu bat egingen du, tratamenduaren xehetasunak behar bezala jasota egon daitezen beti bertan.

Tratamenduaren arduradunaren estipulazioak.

Klausula honetan jasotako betebeharrekin, bai eta agiri honen IV. eranskinari (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) dagokion edukiak ere, tratamenduaren enkarguaren kontratua osatzen dute tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren artean, azken hori tratamenduaren arduradun gisa aritzen denean. Hori guztia, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (aurrerantzean DBEO) 28.3 artikuluekin. Erregelamendu haren bidez datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dira, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen du.

Betebehar horiek gauzatzeko egin beharreko prestazioak agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan ezarri bezala ordainduko dira, eta zerbitzu kontratu honen iraupen bera izanen dute. Behar izanez gero, kontratu hau luzatzen den bezainbeste luzatzen ahalko dira. Nolanahi ere, kontratua amaitzean, sekretua gordetzeko betebeharra ez da amaituko, eta ez du mugarik izanen kontratua egikaritzen aritu direnendako.

Kontratu honen xedea betetzeko, kontratistak ez du zertan eskuratu tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizuneko bestelako datu pertsonalik, eta, hortaz, ez du inola ere baimenik izanen IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) adierazitakoak ez diren bestelako datu pertsonaletarako sarbidea izateko, ez eta horien tratamendurako ere.

Kontratua egikaritu bitartean intzidentziaren bat egonez gero, eta horren ondorioz kontratistak ustekabeen eta oharkabeen sarbidea badu IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) jasota ez dauden datuen tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizuna diren datu pertsonaletara, kontratistak tratamenduaren organo arduradunari, datuak babesteko ordezkariari hain zuzen ere, jakinarazi beharko dio ahal bezain lasterren, eta, beranduenez, 72 orduko epean.

Kontratistak honako betebehar hauek betetzen direla bermatu beharko du; betebeharrak IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) jasotakoaren araberrakoak dira, eta bat datoz DBEOren 28. artikuluan ezarritakoarekin:

a) Datu pertsonalak tratatzean, agiri honetan eta kontratua egikaritzean aplikatzekoak diren gainerako kontratu dokumentuetan jasotako jarraibideak betetzea, bai eta tratamenduaren arduradunak unean-unean idatziz ematen dizkionak ere.

Kontratistaren ustez unean aplikatzekoa den datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkako jarraibideren bat badago, berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari.

b) Datu pertsonalik ez erabiltzea eta ez aplikatzea kontratuaren xedea egikaritzeaz bestelakoa den edozein helbururekin.

c) Datu pertsonalak tratatzea, bat etorri DBEOren 32. artikuluan jasotako segurtasuneko irizpideekin eta edukiarekin. Halaber, behar edo komeni diren segurtasun eta antolaketa neurriak aztertzea eta hartzea, eskuratutako datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko.

Bereziki, eta inolako mugarik gabe, nahitaezkoa izanen da IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamendurako enkargua) jasotako arrisku eta segurtasun mailaren babes-neurriak aplikatzea.

d) Kontratua egikaritzeko eskuratutako datu pertsonalen konfidentzialtasuna erabat gordetzea, eta berdin jardutea tratamendurako erabiltzen direnekin, edozein dela ere horiek eskuratzeko baliatutako euskarria. Betebehar hori izanen du kontratistaren kontura datu pertsonalen tratamenduko fasean esku-hartzen duen edozeinek, eta kontratistaren ardura izanen da haren mende daudenei behar bezalako jarraibideak ematea sekretua gordetzeko betebeharrak, bai eta betebehar horri zerbitzua ematen amaitu edo zerbitzutik bereizi ondoren eutsi behar izateko betebeharrak ere.

e) Agiri honen xede diren datu pertsonalen tratamendurako baimendutako pertsonen zerrenda bat izatea, eta bermatzea pertsona horiek idatziz eta berariaz konprometitzen direla datu horien konfidentzialtasuna errespetatzera, bai eta behar diren segurtasun neurriak betetzera. Azken horiek behar bezala jakinarazi beharko zaizkie baimendutako pertsonari. Era berean, tratamenduaren arduradunaren eskura jarriko ditu une oro egiaztatzeko dokumentu horiek.

f) Bermatzea datu pertsonalen tratamendurako baimendutako pertsonak beharrezko prestakuntza dutela datu horien babesari dagokionez.

g) Ez komunikatzea (lagatzea) eta ez hedatzea datu pertsonalak hirugarrenei, ezta gordetzeko bada ere, salbu eta kasuan-kasuan aurretiazko berariazko baimena eman badu tratamendurako organo arduradunak.

h) Datuak babesteko ordezkaria izendatzea, DBEOren arabera beharrezkoa bada eta borondatez hala egiten bada, eta izendapena tratamenduaren arduradunari jakinaraztea, bai eta kontratistak datu pertsonalak babesteko ordezkari gisa (tratamenduaren arduradunaren ordezkariak) izendatutako pertsona fisikoen identitatea eta harremanetarako datuak ere, datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa betetzearen arduradun baitira, lege-, forma- eta segurtasun-alderdiei dagokienez.

i) Agiri honen xede den kontratua amaitu ondoren, eta IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) adierazitako tratamenduaren organo arduradunak hautatuta, itzultzea edo suntsitzea eskuratutako datu pertsonalak, kontratistak tratamenduaren ondorioz sortutakoak eta datu horiek dituzten euskarri eta dokumentuak. Ez dira datuak suntsituko, baldin eta horiek gordetzeko ahalbidetzen edo eskatzen badu Europar Batasuneko zuzenbideko arauen batek.

Edonola ere, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak gordetzen ahalko ditu tratamenduaren organo arduradunarekin duen harremana dela-eta erantzukizunen bat izaten ahal duen epean. Hala gertatuz gero, datuak blokeatuta gordeko ditu, ahalik eta denbora gutxien, eta epe hori amaitzean modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu.

j) Datu pertsonalen tratamendua gauzatzea tratamendurako sistema eta gailuen bidez, eskuzkoak zein automatizatuak, eta IV. eranskinean (Datu pertsonalen tratamendurako enkargua) jasotako tokietan. Ekipamendu hori kontrolatzen ahalko du, batetik, tratamenduaren organo arduradunak, edo, bestetik, kontratistak, zuzenean zein zeharka. Halaber, tratamenduaren organo arduradunak aurretiaz eta idatziz berariaz baimentzen ahalko ditu beste batzuk, aipatu eranskinean adierazi moduan. Betiere, pertsona horiek kontratuaren xedea egikaritzeko erabiltzaile edo profilak izanen dituzte.

k) Datu pertsonalak tratatzea Europako Esparru Ekonomikoaren barnean, edo aplikatzekoa den araudian segurtasun baliokidea den batean. Datuak ez dira espazio horretatik kanpo tratatuko, ez zuzenean ez eta baimendutako edozein azpikontratisten bidez ere, bat etorritik agiri honetan eta gainerako kontratu dokumentuetan ezarritakoarekin. Salbuespen izanen da horretara behartuta egotea Europar Batasuneko edo estatu kideko zuzenbide aplikagarriaren arabera, IV. eranskinean («Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua») beste zerbait adierazten bada edo tratamenduaren organo arduradunak berariaz hala agintzen badu.

Estatuko zuzenbideak behartuta edo Europar Batasuneko zuzenbideak behartuta kontratistak datu pertsonalen nazioarteko transferentziaren bat egin behar izanez gero, legezko betebeharrak hori idatziz jakinaraziko dio tratamenduaren organo arduradunari, tratamendua egin baino behar besteko aurrerapenarekin, eta bermatuko du tratamenduaren organo arduradunari aplikatzen ahal zaion edozein baldintza betetzen dela, salbu eta aplikatzekoa den zuzenbideak debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuak direla-eta.

l) Tratamenduaren organo arduradunari berehala eta prestutasunez jakinaraztea eskura eta kargura dituen datu pertsonalen segurtasunaren edozein urratze, 72 orduko epean, gehienez ere. Hala, intzidentzia dokumentatzeko eta jakinarazteko informazio garrantzitsu guztia helaraziko dio, bai eta informazioaren tratamendurako eta kudeaketarako sisteman edozein akats ere, gertatu dena edo gertatzen ahal dena, eta arriskuan jartzen duena datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna. Halaber, jakinaraziko du konfidentzialtasunaren inguruan egoten ahal den edozein urraketa, kontratua gauzatzean lortutako datuak eta informazioak hirugarren pertsonari jakinaraztearen ondorioz, eta konfidentzialtasuna zer interesdunek galdu zuten zehaztuko du; hori guztia, DBEOren 33. artikulua arabera.

m) Tratamenduaren organo arduradunari ahal bezain laster jakinaraztea interesdun batek harekiko gauzatu nahi duela bere eskubideetako edozein, hala nola sarbidea izatea, zuzentzea, ezabatzea, aurka egitea, beren datu pertsonalen eta aplikatzekoa den araudiak aitortutako beste batzuen tratamendua eta eramangarritasuna mugatzea eta automatizatutako erabaki indibidualizatuetaarako ez erabiltzea.

Komunikazioa berehala egin beharko da, eta ezin izanen da eskubidea gauzatzeko eskaera jaso eta hurrengo laneguna baino gehiagora luzatu. Jakinarazpenak, halaber, eskubidea gauzatzen duenaren identifikazio fedemailea jasoko du, bai eta, hala badagokio, eskaera ebatzeko erabakigarriak izaten ahal diren dokumentuak eta bestelako informazioak ere.

Tratamenduaren organo arduradunari lagunduko dio, posible izanez gero, eginbeharra bete dezan eta eskubidea gauzatzen ari den interesdunari erantzun diezaion.

n) Tratamenduaren organo arduradunarekin batera lan egitea, segurtasun arloko neurrien betebeharrak gauzatu ditzan, agintaritza eskudunei edo interesdunei segurtasun-neurrien etenak (egin direnak edo egiten saiatu direnak) komunikatzeko eta/edo jakinarazteko, bai eta datu pertsonalen babesari buruzko inpaktuebaluazioak eta agintaritza eskudunei alde zuzeneko kontsultak egiteko ere, tratamenduaren izaera eta eskura duen informazioa kontuan hartuta.

Halaber, tratamenduaren organo arduradunaren eskura jarriko du, hark hala eskatuz gero, agiri honetan eta gainerako kontratu dokumentuetan jasotako betebeharrak guztiak gauzatzen direla egiaztatze beharrezko informazio guztia, eta tratamenduaren organo arduradunak egiten dituen auditoretza eta ikuskapenetan, halakorik balego, lagunduko du.

ñ) DBEOren 30.5 artikuluan jasotako egoeretan, idatziz izatea, baita formatu elektronikoa ere, tratamenduaren organo arduradunaren kontura eginiko tratamendu jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinak gutxienez DBEOren 30.2 artikulua adierazitako egoerak jaso beharko baititu.

o) Datu pertsonalen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten frogak izatea, horien artean betetze auditoretzen emaitzak. Horiek tratamenduaren organo arduradunaren eskura jarri beharko dira, hark hala eskatzen badu. Halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, tratamenduaren organo arduradunaren eskura jarriko du unean-unean eginiko informazio, egiaztapenak eta auditoretza oro.

p) Tratamenduaren organo arduradunari ematea, datuak biltzen direnean, tratatuko diren datuei buruzko informazioa. Informazioa emateko erabiltzen diren idazketa eta formatua tratamenduaren organo arduradunarekin adostu beharko dira datuak biltzen hasi baino lehen.

Azpikontrazioei lotutako tratamenduaren azpienkarguak.

Kontratuak azpikontratatzea baimentzen badu, eta kontratistak azpikontratatu nahi badu datu pertsonaletarako sarbidea izatea dakarren kontratuaren egikaritze zati bat, asmo hori tratamenduaren organo arduradunari jakinarazi beharko dio, eta datuen zer tratamendu egingen den identifikatu beharko du, tratamenduaren organo arduradunak erabaki dezan baimena eman edo ez.

Ondorengo bi baldintzak bete beharko dira, edozein kasutan ere, tratamenduaren organo arduradunak, baimena ematea erabakiz gero, hori emateko:

1. Azpikontratistak datu pertsonalak tratatzea indarreko legeriarekin, agiri honetan jasotakoarekin eta tratamenduaren organo arduradunaren jarraibideekin bat etorritik.
2. Kontratistak eta enpresa azpikontratistak datu pertsonalen tratamendurako enkargu-kontratu bat formalizatzea, artikulua honetan aurreikusitakoak bezain murriztaileak ez diren baldintzetan. Kontratu hori

tratamenduaren organo arduradunaren esku jarriko da, berak eskatuta, datu haren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Kontratistak aldagetak bat egin nahi badu beste azpikontratista batzuk sartu edo ordezteko, aurretik adierazitako moduan jokatu beharko du. Hala, tratamenduaren organo arduradunak aintzat hartu beharko du adierazitako bi baldintza horiek betetzen direla, egoki izanez gero, aldageta horiek baimentzeko. Ulertuko da ez dela baimenik ematen baldin eta kontratistak ez badu halakorik jasotzen tratamenduaren organo arduradunak kontratistak emandako informazioa jaso eta 5 eguneko epean.

21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldagetak eta suntsitzeaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordeztu, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztzen ahalko dute kontratazio agirien aurka, tramite-egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioz lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien igurikimenei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkeztzen ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EUSKARABIDEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO.
--

..... jauna/andreak, zenbakidun NANA duenak,
.....(a)ren ordezkari (.....IFKa), / bere izenean (ezabatu behar ez dena), bere erantzukizunpean adierazten du:

1) Berak edo ordezkatzan duen entitateak betetzen dituela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 14. artikuluan jarduteko, gaitasun juridikoa edukitzeko eta ordezkari izateko ezarritako baldintzak.

2) Ezagutzen eta onartzen dituela kontratazioa arautzen duten agiriak eta ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan kontratatzeke debekurako ezarritako zergatietako batean sartuta.

3) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta honako hau dela kontratuko jardueren esparruko negozio-bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldietan:

URTEA	ZENBATEKOA (€)
2023	
2024	
2025	

4) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak eta, ondorio horietarako, adierazten du ondoko zerbitzuak bete dituela:

Emandako **zerbitzu nagusien zerrenda:**

URTEA	XEDEA	HARTZAILEA	ZENBATEKOA (€)	Gauzatze datak
2023				
2024				
2025				

5) Egunean dituela Gizarte Segurantzaren eta zerga arloko bere betebeharrak guztiak.

6) Betetzen dituela kontratuko prestazioak egikaritzeko eskaturiko lege baldintzak.

7) Nafarroako Foru Komunitateko edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela prozeduraren ondoriozko intzidentzia guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruari uko eginik.

8) Helbide elektroniko hau ematen duela, prozeduraren zeinahi faserekin loturiko jakinarazpenak bide telematikotatik jaso ahal izateko:

Adierazpen honetan aipatzen diren inguruabarrak betetzen dira eskaintzak aurkezteko epearen bukaeran.

(Tokia, eguna eta sinadura)

I.I eranskina

Adjudikaziodun izateko proposatutako enpresak bakarrik aurkeztu beharrekoa, behar diren egiaztagiriekin bat.

Proiektuaren arduradunaren (zuzendaritza eta koordinazioa) **titulazio akademikoa.**

Tituluaren izena	Urtea

Proiektuaren arduradunaren (zuzendaritza eta koordinazioa) **lanbide-esperientzia baten egiaztagiria:**

Ikerketaren izena	Iraupena

Proiektuaren arduradunaren (zuzendaritza eta koordinazioa) **euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulazioa:**

Langilearen izen-deiturak	Titulua

Inkestak egin eta gainbegiratuko dituzten langile guztiek **euskaraz dakitela egiaztatzen duten tituluak, C1 mailakoak** edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan horren **baliokide** direnetakoak.

Langilearen izen-deiturak.	Titulua

*Behar beste lerro gehitu.

II. ERANSKINA

BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

Izen-abizenak: NANA/IFZa: Jakinarazpenetarako helbidea:
..... P. kd.: Herria: Telefono zenbakiak: Bere izenean / honako sozietate hau ordezkatzuz (bidezkoa dena): (IFZa:).

Talde batean elkarturik parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztuz gero eskaintza, adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

- Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten dira.
☐ Bai
☐ Ez
- Taldean elkarturik aurkezten dira. Horrelakoetan, zehaztu bakoitzaren partaidetza.
☐ Bai
☐ Ez

Enpresaren izena..... ⇒Partaidetza %

Enpresaren izena..... ⇒Partaidetza %

- izendatzen da ordezkari edo ahaldun bakar, eta kontratua amaitu arte haren ondoriozko eskubideak gauzatu eta betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa izanen du.

Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzekeo debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak, 22.1.i) artikuluan.

(Tokia, eguna eta lizitatzaillearen edo lizitatzailleen sinadura)

III. ERANSKINA

ESKaintza Ekonomikoaren Eredua

IZENA: Nafarroako VIII. Inkesta Soziolinguistikoa antolatu eta bildu, grabatu, kodifikatu, araztu eta baliozkotzeko kontratazioari dagokion agiri arauemailearen berri eman zaio(r)i (IFZa:) eta(r)en izenean/hura ordezkatzuz (IFZa:.....; jakinarazpenetarako helbidea:.....), konpromisoa hartzen du inkesta egiteko aipatu baldintzapean, eta honako eskaintza hau egiten du:

PREZIOA _____ euro, BEZa barne.

.....(e)n,(e)koaren(e)an

IV. ERANSKINA

DATU PERTSONALAK TRATATZEAREN ENKARGUA

1.–Datu pertsonaletan egin beharreko tratamenduaren deskribapen orokorra

Deskribapena:

Bat etorri DBEOren 28.3 artikularekin, datu pertsonalen tratamenduaren izaera, helburua eta xedea ezartzen dira. Hauek dira, hain zuzen:

Kontratuaren xedea da Nafarroako Foru Komunitatean VIII. Inkesta Soziolinguistikorako landa-lana egitea.

Kontratistaren langileek datu pertsonalak tratatzen ahalko dituzte agiri honetan ezarritako zerbitzuak emateko. Datu pertsonalak kontratistaren langileek bakarrik tratatuko dituzte, eta kontratatutakoaren xedea gauatzeko besterik ez.

Kontratua egikaritzearen ondorioz uneren batean beharrezkoa baldin bada eranskin honetan ezarritakoa aldatzea, kontratistak behar bezala arrazoituta eskatuko du, eta zer aldaketa egin nahi duen adieraziko du. Administrazio publiko hau ados badago eskatutako aldaketa edo aldaketekin, eguneratutako eranskin bat igorriko du, datu pertsonalen tratamenduaren xehetasunak zehatz-mehatz jasota egon daitezen beti.

2.–Kolektiboak eta tratatutako datu pertsonalak

Kontratistak honako interesdunen kolektiboetara eta tratatutako datu pertsonaletara izaten ahalko du sarbidea:

Tratamenduak eta interesdunen kolektibo nagusiak	Eskuratzen ahal diren tratamenduko datu pertsonalak
1. tratamendua: VIII. Inkesta Soziolinguistikoaren landa-lanak egiteko bildutako datuak	- NANA / IFZa - Izen-deiturak - Sexua - Helbidea - Telefonoa - Sinadura - Nazionalitatea, jaioteguna, helbide elektronikoa - Ezaugarri pertsonalak, ekonomikoak, finantzakoak eta asegurukoak - Bestelakoak

3.–Datu pertsonalen tratamenduaren elementuak

Datu pertsonalen tratamenduan honako hauek egingen dira (adierazi bidezko dena):

- ☐ Biltzea / Erregistratzea
- ☐ Sailkatzea / Egituratzea
- ☐ Gordetzea / Segurtasun kopia egitea
- ☐ Aldatzea
- ☐ Erauztea
- ☐ Kontsulta egitea
- ☐ Komunikatzea / Transmititzea
- ☐ Mugatzea
- ☐ Ezabatzea / Ezereztea / Ahaztua izateko eskubidea
- ☐ Kopiak suntsitzea
- ☐ Segurtasun kopiak berreskuratzea

4.–Datu pertsonalak izatea kontratua amaitutakoan

Kontratua amaitutakoan, kontratistak honako hau egin beharko du:

a) Zerbitzua eman ondoren, tratamenduaren organo arduradunari itzultzea datu pertsonalak, eta, hala badagokio, horiek dituzten euskarriak ere bai. Itzulketa horrek berekin dakar kontratistak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatzea. Halere, kontratistak kopia bat gordetzen ahalko du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta daudela, kontratua egikaritzearen ondorioz erantzukizunen bat egoten ahal den bitartean.

Aurrekoa gorabehera, tratamenduaren organo arduradunak kontratistari errekeritzen ahalko dio a) aukera bete beharrean, ondorengo b) edo c) aukerak bete ditzan:

b) Zerbitzua eman ondoren, tratamenduaren organo arduradunak idatziz izendatutako tratamenduaren arduradunari itzultzea datu pertsonalak, eta, hala badagokio, horiek dituzten euskarriak ere bai. Itzulketa horrek berekin dakar kontratistak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatzea. Nolanahi ere, kontratistak kopia bat gordetzen ahalko du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta daudela, kontratua egikaritzearen ondorioz erantzukizunen bat egoten ahal den bitartean.

c) Datu pertsonalak suntsitzea, zerbitzua emandakoan. Suntsitu ondoren, kontratistak horiek suntsitu dituela egiaztatu behar du idatziz, eta ziurtagiria eman behar dio tratamenduaren organo arduradunari. Nolanahi ere, kontratistak kopia bat gordetzen ahalko du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta daudela, kontratua egikaritzearen ondorioz erantzukizunen bat egoten ahal den bitartean.

5.–Segurtasun neurriak

Datuen tratamenduei aplikatuko zaizkio behar diren segurtasun neurriak, bete beharrez Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan ezarritakoa Apala.

Kontratistak ezin izanen du neurri horiek ezartzeari utzi ezta ezabatu ere arrisku azterketa bat edo inpaktuaren ebaluazio bat eginda, salbu eta administrazio publiko honek horretarako berariazko baimena ematen badu.

Ondorio horietarako, kontratistaren langileek administrazio publiko honek ezarritako segurtasun neurriak bete beharko ditu, eta ezin izanen du administrazio publiko honek definitutakoak ez diren tratamendurik egin datu pertsonalen gainean.

.....(e)(a)n,koren(e)(a)n.

Kontratista

B ATALA – BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Oinarria eta aurrekariak

Inkesta soziologikoaren xedea da euskararen egoerari eta garapenari buruzko informazio eguneratu, konparagarri eta metodologikoki solidoa ematea. Ezinbesteko tresna da euskararen inguruko hizkuntza-gaitasuna, erabilera, familia-transmisioa eta pertzepzio soziala aztertzeko, eta hizkuntza arloko politika publikoak diseinatzeko eta ebaluatzeko oinarrietako bat da.

Ikerketaren xedea da informazio estatistiko ofiziala eskuratzea, Nafarroan euskararen errealitate soziolinguistikoa definitzen duten aldagai nagusiak aztertzearen bidez.

Inkesta aldizka egin da 1991. urtetik, bost urtean behin, eta euskarak bere lurralde-eremuan izandako garapenaz jabetzeko tresna irmoa da.

2. Egin beharreko lanaren xedea eta ezaugarriak

Nafarroan VIII. Inkesta Soziolinguistikoan egin beharreko landa-lana gauzatzea; hain zuzen ere, 2.000 inkesta eginen dira, azterketaren xede diren herritarrei:

- 1.000 inkesta, Nafarroan bizi diren euskal hiztunei.
- 1.000 inkesta, Nafarroan bizi diren eta euskal hiztunak ez direnei.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak enpresa adjudikaziodunari galdetegia (egituratua eta itxia) emanen dio, baita lagin izenduna ere.

Enpresa adjudikaziodunak SPSS formatuan aurkeztu beharko ditu datuak, bermatuta galderen eta erantzunen arteko korrespondentzia dagoela, errenkada eta zutabeetan kokapen egokia dutela, bikoizketarik ez dagoela eta fitxategiak barne koherentzia duela. Halaber, erantzunaren kalitatea bermatzeko egoki jotzen duen beste edozein berrikuspen egiten ahalko du. Datuak entregatzeko erregistroaren diseinu bat emanen da, entregarekin bat etortzeko.

Lana amaitutakoan, enpresa adjudikaziodunak behin betiko SPSS fitxategia entregatuko du, intzidentzia txosten batekin batera. Azken horretan, jasoko da zer gertakari aipagarri gertatu den kontaktatzea, grabazioa, berrikuspena, kontrola eta galdetegiaren kudeaketa gauzatu bitartean. Halaber, nabarmendutako intzidentziak hobetzeko proposamenak jasoko ditu.

Inkesta soziolinguistikoaren zehaztapenak:

Inkestaren biztanleria-esparrua dira 16 urteko edo gehiagoko Nafarroako biztanleak, familiaren etxebizitza nagusian, hau da, ohiko bizileku gisa erabiltzen den etxean bizi direnak. Lagina geruzatuko da lurraldearen, sexuaren eta adinaren arabera.

3. Lanen deskribapena

3.1 Landa-lanaren antolaketa eta plangintza

- Lan-plana eta kronograma diseinatzea.
- Inkestaren posta-jakinazapena:
 - Inkestaren ezaugarriak eta biltzeko prozesuaren ezaugarriak zehazten dituen jakinarazpena idaztea, eta azpimarratzea parte-hartzea garrantzitsua dela. Halaber, kontsultetarako telefono zenbaki bat eta helbide elektroniko bat adierazi beharko dira.
 - Titularrei bidali beharreko jakinarazpena antolatzea eta sekuentziaztea, eta datuak biltzeko egutegia optimizatzea.
 - Jakinarazpenak inprimatzea eta bidaltzea, Euskarabidearen oniritzia jaso ondoren betiere.
- Dei-protokoloak eta inkesta-egutegiak diseinatzea, bai eta datu-bilketaren plangintza estrategikorako kontuan har daitezkeen gainerako lan guztiak ere. Adingabekoen kasuan egin beharreko tratamendua jaso beharko du.
- Lantaldearen prestakuntza: gainbegiratzeko eta koordinatzeko langileak eta datuak biltzeko langileak. Arazteko eta baliozkotzeko langileak.
- Doako zenbaki bat jarriko da –ahal dela, 948–, bai eta helbide elektroniko bat ere, zalantzak, gorabeherak eta argibideak jakinarazteko. Zenbaki horrek erabilgarri egon beharko du landa-lana hasi baino astebete lehenagotik bi aste geroago arte.
- Datuak biltzeko beharrezkoak diren prozesuak prestatzea, informatikoak zein informatikoak ez direnak, ahalbidetuko dutenak CATI bidez egitea elkarriketa.
- CAWI inprimakia prestatzea; osagarria izanen da, baina ez da lehenetsitako aukera izanen. CAWIak bete beharreko kalitate baldintzak CATIak bete beharrekoen berdinak izanen dira. Datuak falta direla edo funtsik gabekoak direla detektatuz gero, elkarriketatuari deitu beharko zaio berriz, intzidentziak konpontzeko eta erantzunen kalitatea bermatu ahal izateko.

3.2 Informazioa biltzea.

- 2.000 inkesta egitea, ahal dela telefono bidez (CATI), Euskarabideak emandako egituratutako galdetegiari jarraituta.
 - Deiak astelehenetik larunbatera egingen dira, 09:00ak eta 21:00ak artean, salbu eta pertsonak beste aukeraren bati buruzko mezua utzi badu.
 - Erantzuteko ezintasuna duten pertsonen kasuan, egoera zehaztu beharko da, eta hurbileko informatzaileengana jotzen ahalko da, batez ere inkestaren titularrarekin bizi direnengana, haien izenean erantzuteko.
 - Inkestak, ahal dela, telefono bidez egingen dira. Deia jasotzen duen elkarriketatuak ezin badio galdetegiari une horretan erantzun, baina parte hartu nahi duela adierazten badu, esteka bat bidaliko zaio, galdetegia CAWI modalitatean bere kasa bete dezan. Aukera hori erabat osagarria izanen da, eta aipatu egoeran bakarrik erabiliko da. Kasu horietan, elkarriketatuari erabiltzaile

eta pasahitz pertsonal eta bakarrak helaraziko zaizkio inkesta bete dadin eta, horrela, galdetegia behar bezala identifikatzea posible izan dadin.

- Erantzunak CATI sisteman erregistratzea.
- Erantzunen kalitatea denbora errealean egiaztatzea.
- Telefono kontaktu eta eginiko inkesta guztiak grabatzea, horiek gainbegiratzeko eta datuak arazteko. Grabazioak Euskarabidearen eskura jarriko dira, datuak biltzeko prozesua gainbegiratu ahal izateko.
- Erantzunik eza kudeatzea:
 - Harremanetarako estrategia egokia aplikatzea: metodoak, saialdien kopurua, orduak...
 - Dei kopurua: 4. harreman-saiakeratik aurrera, SMS bat bidali beharko zaio pertsonari, eskura jarritako doako linearekin harremanetan jartzeko eskatuz.
 - Argudio batzuk prestatzea erantzunik eza minimizatzeko, eta horri lotutako intzidentzia guztiak dokumentatzea.
 - Ordezkapenak behar bezala kudeatzea, hala dagokionean.

3.3 Landa-lanaren jarraipena egitea, gainbegiratzea eta kontrolatzea

- Landa-lanaren aurrerapenaren jarraipena egiteko mekanismo sistematikoak ezartzea, eta horren baitan txertatzea Euskarabideari astero-astero txostenak bidaltzea.
- Inkesta egiten duten langileak gainbegiratzea, eta egiaztatzea prozedurak eta kalitaterako protokoloak betetzen dituztela.
- Inkesten **kalitate kontrolak** egitea:
 - Erantzunen egiazkotasuna eta koherentzia egiaztatzea.
 - Intzidentziak berrikustea.
 - Bikoizketak edo akatsak egiaztatzea.
- Jarraipen-fitxategiak eta datu-bilketaren adierazleak ematea astero.
- Lan-partearak eta gorabeheren estatistikak egitea, eta landa-lanen kontrola eta jarraipena, oro har, egitea.

3.4 Datuen tratamendua

- Bildutako datuak kodetzea, araztea eta baliozkotzea.
- Kontrol irizpideak aplikatzea: inkoherentziak detektatzea, barne berrikuspenak eta kontrolak, besteak beste.
 - Inkestatzaile bakoitzaren lanaren % 15 ikuskatuko da, gutxienez.
- Datuak SPSS formatuan entregatuko dira, eta honako hauek bermatuko:
 - Galderen eta aldagaien arteko korrespondentzia egotea.
 - Errenkada eta zutabeetan kokapen egokia izatea.
 - Bikoizketarik ez egotea.
 - Fitxategiak barne koherentzia izatea.

3.5 Unitate titularren tratamendua:

Geruza bakoitzeko titulartasun tasa % 70ekoa izan dadin saiatuko da.

Unitate titular bat baztertzeko arrazoi posibleak:

- Ezezko esplizitua.
Saihestu beharreko egoera da. Unitate titularrarekin harremanetan jartzeko eta haren gogo onezko lankidetzat lortzeko prozesua optimizatu beharko du enpresak.
- Luzaroko absentzia (2 egoera). Ezinezkoa da pertsona telefonoz aurkitzea: Pertsona bat arrazoi horrengatik baztertzeko, gutxienez 6 telefono-saiakera egin beharko dira ordu desberdinetan, eta gutxienez 3 dei beste hirurak ez diren egun batean egingo dira, eta gutxienez 3 eguneko tarteak utziko dira. Egindako dei guztien eta horien emaitzaren erregistroa gorde behar da. Gainera, erregistratu egin behar da kasu horietan posta-jakinarazpena itzuli den. Unitate bat kategoriatik honetan karakterizatzeko, beharrezkoa izanen da: Telefono bidezko 6 dei huts eginda eta posta bidezko jakinarazpen itzulia.
- Ezinezkoa da pertsona telefonoz aurkitzea, aurreko puntuaren arabera, baina ez dago itzulketaren posta-jakinarazpenik. Kasu horietan, beste gutun bat bidali beharko da, lankidetzaren garrantzia gogorarazteko. Bidali eta astebetera ez badago berririk, absentzia luzetzat joko da. Gorde egin behar da egindako posta-bidalketen erregistroa, irteera-datekin eta balizko itzulketen jasotze-datekin: Telefono bidezko 6 dei huts eginda + posta bidezko erreklamazioa + 7 eguneko itxaronaldia.
- Esparru-errorea: Hildako pertsona edo geruzatik kanpoko beste etxebizitza batean bizi dena (posta-helbide zehatza jaso beharko da egiaztatzeko). Beste kasu batzuk: Euskarabideak zehaztuko ditu, kasuistikan oinarrituta.

3.6 Azken dokumentazioa prestatzea eta entregatzea

- Inkestaren datu-bilketaren azken txostena, lana egiteko prozesuan sortutako gorabeherak, kasuistika eta maiztasunak zehaztuz.
- Datuak behar bezala baliozkotuta dituen azken fitxategia, Euskarabideak ezarritako erregistro-formatuan eta -diseinuan.

4. Inkestarako baliabideak, Euskarabideak emandakoak

Euskarabideak honako hauek emanen dizkio enpresari:

- 2.000 titularren lagin izenduna, aurrez zehaztu den ordezkoen zerrendarekin
- Galdetegi egituratu eta itxia, bi hizkuntzatan (euskara eta gaztelania)
- Datuak biltzerakoan erabili beharreko nomenklaturak
- SPSS fitxategia, grabatu beharreko etiketak eta balioak sortzeko erregistro diseinua duena.

5. Entregatzekoak

- SPSS fitxategia.
- Intzidentzia txostena.

Kontratua gauzatu bitartean sortutako dokumentu guztiak logotiporik, ur-markarik eta enpresa adjudikazioduna identifikatzeko elementurik gabe aurkeztu beharko da; izan ere, ikerketa eta materialak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren jabetzakoak dira.

Halaber, egoki denean, dokumentuak formatu editagarrian aurkeztu beharko dira, bai eta baldintza agiriak ezartzen duen edo Euskarabideak eskatzen duen bestelako edozein formatutan ere.

6. Egikaritzeko egutegia: epeak eta muga-egunak

- Egutegi-proposamena aurkeztea: kontratua sinatu eta hurrengo 15 egun naturalean.
- Lehenengo koordinazio bilera: egutegi-proposamena aurkeztu eta hurrengo astean.
- Inkestak egitea: 2026ko azaroaren 20ra arte.
- SPSS fitxategia eta intzidentzia txostena entregatzea: 2026ko abenduaren 2a.
- Faktura aurkeztea: 2026ko abenduaren 11, beranduenez.

7. Lantokia

Kontratu honetan ezarritakoa betetzeko egiten diren lan guztiak enpresa adjudikaziodunaren egoitzan edo hark ezartzen duen lantokian egingen dira, baina ez dira inondik inora egingen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren lokaletan.

8. Lanen jarraipena

Lanen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da, eta bertan honako hauek egonen dira:

- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren ordezkariak:
 - Eneko Anduaga Insausti: eneko.anduaga.insausti@navarra.es

- Marta Chamorro Armendariz: marta.chamorro.armendariz@navarra.es
- Enpresa adjudikaziodunaren ordezkariaren (landa-lana) zuzendaritza eta koordinazio lanetan aritzen den pertsona.

Lehenengo koordinazio bileran adostuko da lanaren jarraipena nola egin (aldizkakotasuna, bileren formatua, edukiak...). Edonola ere, beharrezkoa bada, lanak iraun bitartean berrikusi eta aldatzen ahalko da, baldin eta dokumentu honen 5. puntuaren ezaugarriak epeak aldatzea eragiten ez badu.

9. Baliabideak

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko baliabide eta bitartekoak izan beharko ditu.

Kontratazioaren xede den lana egikaritzeko behar diren bitarteko materialei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak behar den ekipamendua izan beharko du (ekipamendu teknikoa, programak eta/edo lizentzia informatikoak...), bai inkesta egiteko, bai datuak grabatzeko, kodetzeko, etab.

10. Datuen babesa

Enpresa adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legeria; zehazki, 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Era berean, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak tratamenduaren arduradun den heinean ezaugarriak jarraibideak bete beharko ditu.

Hain zuzen ere, adjudikaziodunak betebeharrak hauek izan behar ditu:

- Datu pertsonalak kontratua egikaritzeko bakarrik tratatzea, eta Euskarabidearen dokumentatutako jarraibideak beteta.
- Informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzea, eta neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzea ekidin daitezkeen baimendu gabeko sarbideak, galerak, aldaketak edo hedapen desagokiak.
- Bermatzea kontratua egikaritzeko inplikaturako langile guztiek datu pertsonalen babesari buruzko prestakuntza jaso dutela, eta berariaz hartzen dutela konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa.
- Informazioaren eskualdaketa-kanal seguruak erabiltzea, barne hartuta SPSS fitxategia eta gaiarekin lotutako edozein dokumentu bidaltzea.
- Ez azpikontratatzea datuen tratamendurik Euskarabidearen aurretiazko eta berariazko baimenik gabe, salbu eta Baldintza Partikularren Agirian jasotako kasuetan.
- Kontratua amaitutakoan, datu pertsonal eta lan-kopia guztiak modu seguruan suntsitzea, eta suntsitu izana dokumentatzea jasotzea, Euskarabideak hala eskatzen badu.
- Euskarabideari jakinaraztea, bidegabeko atzerapenik gabe, kontratuaren esparruan tratatutako datu pertsonalei eragiten dien segurtasun arloko edozein intzidentzia edo urratze.

Betebeharrak horiei muzin egitea kontratuaren ez-betetzetzat hartzen ahalko da, eta ez du eragotziko administrazio-erantzukizuna.